

# 1.GAIA

## Zer da zientzia? Zer da ezagutza?

-Zientzia egitea metodo baten bidez (datuak, hipotesiak, experimentazioa...) ezagutza sortzea da

## Noiztik egiten dugu zientzia edo sortzen dugu ezagutza?

-Gizakiok betidanik izan dugu fenomenoaren zergatia jakiteko grina

-Horretarako, historian zehar era desberdinetan eman die arrazoiak (mythos-logos, filosofoak, jainkoa gauza guztien arrazoiak...)

-Hala ere, ezagutzaren benetako aurrerapausoa bereziki XVIII. mendean eman zen

- Ilustrazioarekin, Jainkoa munduaren erdigunea izatetik, gizakia erdigunea izatera pasatzen da. Era honetan, arrazoiaren bidez aurrerapausoak ematen hasten dira.

-Esan bezala, metodoa EZINBESTEKOA da zientzian, horretan hainbat autorek ekarpen garrantzitsuak egin zituzten

-Galileo Galilei, hipotesiak

-Descartes, zalantzaren ekarpena (cogito ergo sum)

## Metodoa

-Metodo zientifikoak lau paso BEHARREZKO

1-Aztertu: Lehenbizi zenbait galdera sortzen dira, ingurua begirada kritikoz eta kuriositate zientifikoaz aztertu

2-Azaldu: Planteatutako galderei esplikazioak eta erantzunak bilatzen zaizkie, erantzun PROBISIONALAK izango direnak. Hau da, erantzun posible guztiak, hipotesiak, hartzen dira kontuan.

3-Iragarri: Erantzunak egiaztatu

4-Ekin: Azkenik; ezagutza sortu. Edozein ezagutza ez da INOIZ ere ez definitiboa izango, gauzak etengabe kuestionatzen baititugu. Gaur ezagutzatzen duguna hemendik X denborara agian ez dugu eukiko.

## Zein da Gizarte Zientzien eta Natura Zientzien arteko desberdintasuna?

-Biak zientziak dira, zientzia izateko beharrezkoa den oinarriko metodologia bat dutelako

-Metodoak eskatzen dituen lau pausoak betetzen dituzte

-Gizarte Zientziak gizartea aztertu egiten du, hari buruzko hipotesiak sortzen ditu, egiaztatu egiten ditu eta azkenik, hipotesi horiek orokortuz egiaztatu egiten ditu.

-Beraz, Natura Zientziak egiten duen bezala, orokortu egiten du

-Desberdintasuna, aztergaia da

-Gizarte Zientziek gizartea aztertzen dute

## **Objektibotasuna**

Gizarte Zientzien aztergaia hain konplexua izanik, posible al da objektiboa izatea?

\*Konplexua:

- Aztertzailea aztergaiaren zati
- Aztertzaileak, aurreiritziak, balioak...
- Gizarte aldakorra
- Gizarteko kideak desberdinak

### **-Objektibotasunaren inguruan, iritzi desberdinak**

#### **DURKHEIM**

- Gizarte Zientzian, zientzia sortzeko, hau da, gizartea aztertzeko orduan, gizarteari buruzko aurreiritzi guztiak ezabatu behar ditu aztertzaileak
- Mente en blanco\* aztertzen hasteko
- Helburua gizarte ekintzak deskribatzea izango da, adibidez immigrazioa
- Gizarte ekintza horiek aulki bat deskribatuko balitz bezala deskribatu behar da, den bezalakoa, objektibotasun guztiz
- Giiza zientziak zientzia naturalen arau berdinak erabiltzea ezinbestekoa da

Teoria: POSITIBISMO deritzo (objektibo izaten saiatzea metodo zientifikoaren aplikazioan)

#### **BORDIEU**

- Pertsonak, eta beraz, aztertzaileak, definizioz ez gara neutralak
- Onartu behar da neutralak ez garela eta aurreiritziak daudela, kendu ezin direnak
- Zientzia egiteko, Gizarte Zientzien esparruan, lehenbizi aipatutakoa onartzea ezinbestekoa izango da
- Horrez gain, gizakiak sortzen dituzten konstrukto sozialak (generoa, gazteria...)
- Beraz, kontziente izan behar da ezagutzan sorreran pentsamenduak eragin handia duela

Teoria honi: KONSTRUKTIBISMO deritzo

Laburbilduz,

Biek Gizarte Zientziak zientzia egiten dutela esaten dute

Batek esaten du objektiboki egin daitekeela, besteak esaten du pertsonaren begiradak eragin zuzena duela

Beraz,

POSITIBISTA: azterketan begirale hutsa

KONSTRUKTIBISTA: azterketan eragiten duen begiralea